

Eskuzko zuzenketak

Gero liburuaren

lehen edizioan

PATXI SALABERRI MUÑO*

O. Sakrilegiotzat hartuko ez balitzaigu, azken boladan santutasunaren bide-tik hurbil bizi garela esatera ausartuko ginateke. Eta ez bakarrik, Axularrena lekuko, etengabe egiten ditugun irakurketa guztiz piadoso eta zeharo ortodoxoengatik. Izan ere, bide horretatik hur egon gaitezkeela sinetsarazten diguna zera da: duela hainbat urte, honako honetara gakartzan lana bezalako bati ekiteko gogoia erakutsi zuela lehendabiziko aldiz, bizkaitarren patroia-zen izenaz baliatzen zen oinordeko filologiazale batek.

Ezaguna da “Hermano Valentin Berriochoa” izeneko aitzindari hura ez zela “anaia” huts izatetik –barka erredundantzia– aitzinatu, baina egingo genuke emulatu nahi zuenarenaren pareko santutasunerako behar izaten diren meritu gehienak irabazi zituela buruhauste hauetan sartzeko erabakiarekin. Zeru-bideak bide, Nikolas Altzola dugu –berau baita “H.V.B.” akronimoaren atzean agertzen den euskaltzalea– Axularren *Geroren* lehen edizioko aleen arteko erkaketa planteatu zuen lehendabizikoa.

Nola ez dakigula, zoriak elkartzen gaitu Termopila meharretan eta zoriak egiten gaitu kide, eta besteren ahaleginari lar begiratzeko azturarik ez badugu ere, gaurkoan bederen penaz geratu gara Altzola asmo-kideak agindutakoa burutu ez zuelako, zeren eta hark berea bukatu izan balu, besteok orain egin-kizun atseginagotan ibiliko baikinakeen. Eta ez genituzkeen honelakoetan horrenbeste ordu, gogo eta indar galduko nola, gure klasikoren batek esango zukeen bezala, zinez galdu baititugu.

Baina beste inork ez egitekoari heldu, eta geroni egokitu, azkenean, edozein aszeta eremutarrek ez-ikusiarrena egingo liokeen bide latz hau urratzen hastea. Betiere gure debozioen aldarean kasi-santutzat dugun Senekaren bai-

* UPV-EHU.

menarekin, noski, zeren hark, edonork dakien moduan, erreparo gordinak ipini ohi zizkien “letren alferrikako estudioak” egin nahi zituztenei¹. Baimen–aitor dezagun– eskas samarra edonola ere, zeren, egiazko egia erakundetuko zuen sinesmenaren aurretik aritu behar izan zuela eta, nekez jakin baitze-zakeen Kordobakoak nola ehun zitekeen saindu bihurtzeko benetako bidea. Horretan, ezaguna da, “H.V.B.” bezala harat-honat loretsu-loriatsuetan da-biltzanek baino ezin aholku egokirik eman!

Pronostiko guztien kontra, oraingoan behintzat abantaila eman bide digu beranduago jaio izanak.

1. Maiz asko errepikatua izan da esku bateko atzamarrekin kontatu ohi direla akatsik gabe kaleratutako liburuak. Izatez, irarkoletako makineria eta paperen artean beti ezkutatu da, hala edo hola, gure giza-kondizioa agerian utzi nahi izan duen iratxorik.

Historian zehar ia axiomen mailakotzat hartu izan da konstatazio hori eta, egia esan, aski probidentziala gertatzen da oraindik ere libururen bat akats-okerretatik libre aurkitzea. Alabaina, gaurko zuzentzaile automatikoe-kin eta bestelako teknologia berriarekin, badirudi espiritu gisako horiek gero eta zailago dutela mendeetan barrena erraz asko burutzen zuten lana.

Zeinahi ere den argitaratu ekoizpena, arduradunak (autore zein editore) aha-lik eta lan duinena eskaintzen saiatu izan dira tradizionalki, horretarako *a poste-riori* eta eskuz konpondu behar izan badituzte ere hainbat oker eta gabezia.

Eskuzko zuzenketa horiek, dena den, arazo bilakatu izan dira maiz asko, batez ere edizio “osatua” finkatzeko unean. Batetik, edizio bereko ale gehie-nak berdin akastunak² ohi ziren arren, zuzenketok ez ziren beti ale guztietan egiten. Han-hemenka saltzeko aurrikusten ziren aleetan (askotan, beraz), esa-terako, ez zen zuzenketarik egiten, edo, eginez gero, arreta gutxiagorekin bu-rutzen ziren, nekezegia baitzen argitaratu ondoko zuzentze-lan hura. Beste-tik, eta ondorioz, zuzenketak ez ziren beti berdinak gertatzen ale guztietan. Horrela, ñimiñokeriak izan zein pasarte garrantzitsuak, ale batean zuzendu gabe igaro zitekeen hurrengoan arretaz zuzenduko zena.

Kasuistika luzatzeko asmorik gabe bada ere, ezin aipatu gabe utzi litezke inprimategikoak ez ziren beste esku batzuk beranduago egindako zuzenketak eta erantsitako oharrak, ez beti –ez tinta-motan, ez trazoetan– ikertzaileak nahi bezain desberdinak.

Ezaugarri zein arazo horietatik guztietatik erakusten dute hona ekarri gai-tuen *Gero* liburuaeren lehen edizioak (Bordele, 1643) utzitako aleek ere.

Ondoko lerrootan, bada, Axularrek kaleratu *princeps* edizioaren testua berreraikitzen hasteko ezinbesteko diren eskuzko zuzenketa originalak –hots, irarkolatik atera baino lehenago erantsi zirenak– identifikatzeko saioa aur-keztuko da.

¹ “Greziarren gaixotasuna izan zen hau: zenbat arraunlari zeramatzan Ulisesek ikertzea, Iliada Odisea baino lehenago idatzi ote zen eta, gainera, ea autore berarenak ziren; azken batean, estilo ho-rretako kontuak, zeinak, norberarentzat gordez gero, ezertarako ez baitote balio barneko ezagutzari, eta jendaurrean aurkeztuz gero, ez baitirudizu jakintsuago, ozarrago baizik” (Seneka, *De brevitate vitae* 13, 1).

² Inprimatzeko moduak zirela eta, erraz gerta zitekeen ale batzuk akats gutxiagorekin argitaratzea (Salaberri 2007).

2. Guk dakigula³, *Gero* liburuaren lehen edizioak dozena bat ale baino ez digu utzi, bakoitza bere nortasunarekin eta ezaugarri bereziekin. Hona hemen, labur bada ere, banan-banan aurkeztuta⁴:

A) Donostiako Koldo Mitxelena Kulturuneko “Julio Urkixo” ondareak *Geroren* lehen edizioaren bi ale ditu. Lehenengoa aski ongi kontserbaturiko alea da⁵, nahiz eta eskuz egindako zuzenketez betea. Bibliofilo eta euskaltzaleen artean ezagunena, Urkixok berak lehendabizi modu partzialean *RIE* Ven⁶ eta Euskaltzaindiak gero, 1988an, faksimil gisa argitaratzeko erabili zuten⁷.

B) Donostiako Koldo Mitxelena Kulturuneko “Julio Urkixo” funtsetako bigarren *Gero*⁸ berrizatu berria den arren, eraberritzeak ezin izan ditu konpondu gillotinak moztuegi utzi zituen orrialdeak (eta, ondorioz, alboetako makina bat erreferentzia ere). Ale honen benetako garrantzia, ale kanonikoetatik bereizten duten ageriko berezitasun ortografiko eta tipografiko batzuk izatean datza⁹.

D) Gasteizko Eusko Legebiltzarreko liburutegiko alea (A 24-1; R-013305)¹⁰. Oso egoera onean dagoen alea da. Lehen edizioako beste hainbat ale bezala, 1643ko eskuzko zuzenketarik gabea da¹¹.

E) Lacombe Bibliotekako alea (OD-0/3)¹², egun Bergarako Olaso Dorrean gordea. Ale arras garbia da.

F) Lacombe Bibliotekako bigarren alea¹³, Bergarako Olaso Dorrean berau ere. Oso egoera txarrean aurkitzen omen da¹⁴.

G) Bilboko Azkue Liburutegiko alea¹⁵. 1643ko *Geroen* arteko erkaketaren ikuspuntutik, oso da interesgarria ale hau, testuan barrena sakabanatutako zuzenketa gehienak inprimategiko zuzentzailearen eskutik ateratakoak baitira.

³ “Publikoak” diren katalogoetara baino ez gara iritsi gure ahaleginetan, ia ezinezkoa baita liburu-bilduma pribatuetako altxorren berri izatea.

⁴ Zehaztasun gehiagorako ikus Salaberriren “Axularren *Gero* liburuaren lehen edizioa. Aleak, aldeak eta zuzenketak” (prentsan).

⁵ Erreferentziak eta errazteko, U-1 alea aurrerantzean. Urkixok bere erreferentzia ezarri zion *Ex libris*aren ondoan: “J. de U. 1”.

⁶ Ikus *RIE* V ondoko tomoetan: IV: 419-472 eta 517-572; V: 283-374; VI: 5-99, 334-384 eta 441-482; XI: 11-42; eta XXIV: 73-88). Baita <http://www.euskomedia.org/riev100/eu> helbidean ere.

⁷ Aldea dago faksimil bien artean, eta ez beti Euskaltzaindiak argitaratutakoaren –barka bekigu erredundantzia– alde, biak urruntzen baitira, harrigarriro, jatorrizkotik. Bitxikeria nabarmena, esaterako, 164 orrialdekoa: lehen edizioetan (U-1 alean, Lacomberenean, Azkue Liburutegikoan...) ez bezala, testuaren alboko erreferentzia (“Psal. 54.”) 165 orrialdean agertzen da 1988ko “faksimilean”; ez, halere, *RIE* Veko faksimil bukatugabea.

⁸ U-2, aurrerantzean.

⁹ Ikus Salaberri 2007.

¹⁰ Aurrerantzean “G” deituko dugun ale honen faksimila honako helbidean aurki daiteke digitalizaturik: <http://klasiakoak.armiarma.com/faksimileak/17/AxularGero.pdf>

¹¹ Bertan jasotzen diren oharrak beranduagokoak dira: latinez idatzitako lerroak (111 or.), inoizka testuan agertzen diren hitzen ordainak Hegoaldeko euskalkietan (113 or.: “ez aiticinago”ren ondoan “ez aurrerago”...; “erdietsicoitut”-en alboan “alcanzatu atrapatu...”, etab.), gaztelaniazko pasarteak (119 or.: “tambien las buenas obras tienen su medida”...), gaztelaniazko ordainak (117 or.: “cinez”-en ondoan “deveras”, “Erhoqueria”-ren alboan “locura”, etab.), sinadura gisakoak han-hemenka...

¹² Aurrerantzean “Lacomberen alea” edo “L-1” gisa izendatuko da.

¹³ Aurrerantzean “L-2”.

¹⁴ Euskaltzaindiko Azkue Liburutegiko liburuzainei zor diegu albistea.

¹⁵ Aurrerantzean, Azkue Liburutegiko ale hau “A” gisa izendatuko da.

H) Orreagako Kolegiatako liburutegiko lehen edizioa¹⁶. Oro har, ia argitaratu zenean bezain garbi dago liburua, eskuz egindako zuzenketa eta ukitu bakan batekin, hain zuzen¹⁷.

I) Iruñeko alea¹⁸, Elkanoko Joakin Lizarragarena izandakoa, Aita Txotinodunek duten Liburutegi Nagusian aurkitzen da¹⁹. Orri baten falta duen arren (359-360 or.), berriztatua²⁰ eta, oro har, ondo kontserbatua da.

J) Paueko Bibliothèque Municipale delakoan dagoen alea²¹. Ongi samar kontserbaturik dago alea. Halere, ezin da gauza bera esan beranduagoko enkuadernazio lanei dagokienez, mozturik utzi baitzituzten orrialde-bazterretako aipamen eta eskuzko zuzenketa nahikotxo²². Oso ditu interesgarriak eskuzko zuzenketa-emendailuak.

K) Pariseko Mazarine liburutegiko alea²³. Badirudi –ez baitugu aztertze-ko aukerarik izan– oharrik gabea dela.

L) Van Eys-en alea Herbehereetako Leiden-en dago²⁴. Ez dugu aztertze-ko betarik izan.

M) L. L. Bonaparte printzearena izandako alea. Liburu zeharo garbia da, eskuzko zuzenketarik gabekoa.

3. Oro har, oso dira azpimarragarriak aleen arteko bereizte-lanak sortzen dituen zailtasunak. Izan ere, eskuz egindako zuzenketak dituzten aleak ditugu, batetik, eta “garbiak” edo direnak, bestetik. Bigarren multzoko horiek inprimatutako edizioaren erreferentzia nagusitzat hartu izan dira eskuarki, baina testuaren osotasunaren aldetik, erantsi beharrik ez da, askoz ere garrantzi gutxiago dute eskuz zuzendutako aleek baino.

Autore-editoreek nahi zuten argitalpen kontuaz ari gara, jakina.

Horrela, han-hemenka geratu diren eskuzko zuzenketa horiek testu-arduradunek nahi zuten edizio “zuzena” edo behar zena argitzen lagun dezakete.

Adierazi bezala, bada, *Gero* liburuaren lehen edizio honetan argitaratu ondoko eskuzko zuzenketei erreparatuzetik hasi beharko da, inoiz edizio kritikorik taxutuko bada.

Eskuz egindako zuzenketok ez dira lehen edizioak utzi dizkigun ale orotan agertzen, ordea. Guztiarekin ere, ale batzuk inolako zuzenketarik gabe dauden bitartean, susmagarri samarrak dira beste batzuek daramatzatenak. Lehen begiradan jatorrizko zuzenketa diruditenak dituzten aleetan ere zuzenketak ez dira beti eta kasu guztietan berdinak edota garai berekoak.

Horregatik, inprentako zuzenketak identifikatu nahi dituen erronka batek testuari ez dagozkionak bereiztetik hasi behar du, haietako ez gutxi beranduagokoak baitira, urtetan barrena izandako jabeek egindakoak seguru asko.

¹⁶ Aurrerantzean, “O” ale bezala ezagutuko da lan honetan.

¹⁷ 540 orrialdearen ezker aldean, “iragaiten” hitzaren ondoan dagoen *pasaiten* hitzak berri samarra dirudi.

¹⁸ “I” alea aurrerantzean. Biblioteca Central de los PP. Capuchinos.

¹⁹ Digitalizatua http://www.cfnabarra.es/BINADI/Ventanas/Entrada_eu.aspx delakoan.

²⁰ 425-432 orrialdeen goiko zatiak kontserbatzaileek berreraikiak izan dira eta testuak eskuz kopiatuak. Modu berean jokatu da 433-440 orrialdeetako zuloekin.

²¹ “P” alea aurrerantzean.

²² Beherago egiaztatuko den bezala, zuzenketak inprentako orraztaileen eskutik atera izanaren seinaleztat har daiteke honako zuzenketok U-1 izenekoekin bat etortzea.

²³ “M” alea guretzat.

²⁴ “E” alea, hemendik aurrera.

Ildo horretan, bada, lan honetan erabat aparte utzi dira alde guztietatik XVIII-XIX. mendeetako moral melengari zor zaizkion eskuzko ohar-zuzenketak (arlo horretakoak dira U-2k erakusten dituen ezabaketak –“îçorratceaz”, “amurusa”...–, berreraiketak eta beste).

Beste hainbatek, berriz, berantiarrak direla erakusten dute, esku (jabe?) erdaltzale beretik isuriak baitira hala erdarazkoak nola euskarazkoak (ikus Eusko Legebiltzarreko alea).

Bestalde, eta kasuistika agortuaz, jatorrizko zuzenketekin batera, gramatikalegiak bezain garbizaleegiak diruditen ukituak erakusten ditu ezin interresgarriagoa den U-1 delakoak ere²⁵. Hori dela eta, garbi asko baztertu ahal izan dira U-1 alean honako orrialdeetako zuzenketok: 27, 28, 29, 30, 31, 32, 33, 34, 355. Zuzenketa horien bazterketa A delako aleak eta Paueko edizioak ere konfirmatzen dute, beraietan ez baita horrelakorik.

Ildo berean, eta grafema diferentziak alboraturik ere, testuan dagokien zuzenketa zeinua edota aztarna daramate maiz asko edizioak eskatu oharrek. Beste aletan islatuak izan direnetan, aintzat hartu izan dira horiek guztiak.

Artikulu honetako erkaketa, beraz, eskuz egindako zuzenketak dituzten aleekin edota zuzenketa aztarnak erakusten dituztenekin burutu da. Guk, hor-hemen sakabanaturik dauden hamabi aleetatik hiru besterik ez dugu eza-gutzen eginkizun horretarako aintzat hartzeko modukoak: U-1 delakoa, Pauekoa eta Azkue liburutegikoa.

Hiru ale horietako orrialdeetan zehar egindako zuzenketa gehienak zuzentzaile berberaren eskutik isuritakoak direla baieztza daiteke eskuarki, berdinak baitira grafemen trazoak eta ezaugarriak. Errepara bekio, halere, ez direla haietako zuzenketa guzti-guztiak *Gero* argitaratu garaikoak. Eskuz idatzitako oharrez zipriztindua dago U-1 delakoa, esate baterako, baina argi da ez direla denak esku beretik sortuak, ez garai berekoak.

Edonola ere, arreta berezia behar da zein diren 1643ko ediziokoak eskatzen zituenak asmatzeko eta zein beranduagokoak. Polizi eleberrietan legez, hemen ere lorratz ororen segimendua egiten dendatu behar izan dugu.

Nonbait soberan dago eranstea lehen edizioko eskuzko zuzenketa hauek modu desberdinetan emanda daudela: batzuk hizkien gaineko aldean kokaturik, hitza ukitu gabe; beste batzuk, hizkien gainean markatuak, zuzenean; ez dira falta, gaizkitzat harturik, ezabatu diren hitzak; beste zuzenketa batzuk –luzeagoak eta zirenak: hitz osoak, etab.– alboetan egin dira, testuan non tar-tekatu behar ziren markatxo batez adierazten zelarik. Hemen ez da adieraziko zein aldetan eta nola eta zein formatan agertzen diren zuzenketok, gehiegi luzatuko bailitzateke berez luzeegia den lan hau.

Metodologikoki, edonola ere, bada azpimarratu beharreko bestelako oharkizunik ere. Izatez, bada zuzenketen identifikazioan lagundu dezakeen beste tresna bat ere, hau da, *Gueroco guero* izenarekin kaleratu zen bigarren edizioa (datarik gabea)²⁶. Akatsez jositako argitaraldi honek eskuzko zuzenketatzat har daitezkeen asko eta asko testuan zuzendurik eta inprimaturik

²⁵ Ikus bitez, esaterako, 27 or. (“placeretara” hitzaren parean “atseguinetara” idatzirik), 29 or. (“ordenatu çuen, edo permititu” hitzen parean “nay icandu çuen”), etab.

²⁶ Bordeleko G. Milanges-enean argitaratu omen zen edizio honek sorrarazten dituen buruhausteez, ikus Salaberri 2007b.

agertzen ditu. Eta hori gertakari esanguratsua izan daiteke hainbeste akats di-tuen edizio batean²⁷.

Laburbilduz, bada: erkaketan aurkitutako zuzenketak egiazkoak zire-nentz balidatzeko azken irizpide berresgarria bigarren edizioarekin erkatzea izan da. Hartan agertzen bazen delako zuzenketa –nahiz eta guk lehen edi-zioko ale bakar batean baino ez aurkitu–, egiazko zuzenketa-seinaletzat har-tu dugu, eta horrela eman²⁸.

Nahi beste prebentzioarekin bada ere, horra hor 1643ko *Geroren* argitaral-diari egin nahi izan bide zitzaizkion eskuzko zuzenketen zerrenda.

GERO (1643ko edizioa)²⁹

Orria	Ler. ³⁰	Forma originala	Eskuz zuzendua ³¹
5	12	Cure	Çure ³²
	15	Curi	Çuri ³³
	18	Cuhurqui	Çuhurqui ³⁴
	20	Cu	Çu ³⁵
6	2	Cu	Çu ³⁶
	8	egundainos	egundainoꝝ ³⁷
	13	anhits	anhitz

²⁷ Bigarren edizioaren akats-kopuru zenbakaitza ezagutzen duenak nekez izan dezake zalantzarik zuzenketak balidatzeko era honetaz, sistematikoki artez emandako bakarrak lehen edizioan eskuz zu-zendu zirenak baitira. Alegia, editore berriek arreta itzela jarri izan zuten lehen edizioako testuan eskuz zuzenduta zeudenak ezin artezago ematen eta, nonbait ondo inprimatua zegoena automatikoki ondo aterako zela edo pentsatuz, ez zuten horrenbeste arreta jarri beste guztian eta, azkenerako, akatsez hor-nitua kaleratu zuten edizio berria.

²⁸ Nolanahi ere den, ez dugu ezkututuko zuzenketa zenbaitetan (txistukari batzuenetan, batik bat) sumatu eta ezin ezaba dezakegun tinta-ukituaren eite berantiarren inpresioa. Horren adibide dira 585 orrialdeko hiruak.

²⁹ Nahasmendurik sor ez dadin, ondoko zutabeetan ez da bereiziko hitz akastunak letrakera etzanez, latinez, izenburuetan edota ertzetan idatzita dauden. Guk, hemen, zuzenketak adierazteko gorde dugu liburuan barrena “Gomendiozko carta” delakorako eta latinezko pasarteetarako erreserbatu-rik dagoen letrakera etzana.

³⁰ Lerroei dagozkien ondozkatze-zenbakiak lerro errealean arabera finkatu dira, orri-buruak, atal-buruak, marrak eta tarteak aintzat hartu gabe.

³¹ Besterik adierazten ez den bitartean, zutabe honetako zuzenketak U-1 delakoan egindakoak di-ra. Edonola ere, ez dira jasoko beste aleetan ondo irakurtzen direnak, nahiz aleren batean eskuzko zu-zenketa argigarriak diruditenak edo azaldu (147 orrialdeko 21-22. lerroetan U-1ek ematen duen zu-zenketa modukoa, adibidez). Bestalde, honako zuzenketa gehienak bigarren edizioan jasoak daudenez gero, testuratu ez zirenak baino ez dira oharretara eramango lan honetan.

³² Dagokigun inprimategian ez bide zuten letrakera etzanez idazteko Ç larririk (ez tamaina ho-rretakorik, ez bestelakorik), horrelako tipografia duen “Gomendiozco carta” delakoan esaldi hasie-rako guzti-guztiak eskuz zuzenduta baitaude. Beste inoiz behar izan zutenean, molde ez etzana era-bili zen: Ç*ahartcean* (XIV. kapituluko izenburuan –184 or. – eta aurkibidean). Arazo horretaz min-tzatu zen Schuchardt bera ere Leizarragaren lanak argitaratzean: “Esta Ç no se encuentra en todos los tipos de letra, y por eso es sustituida o bien por la misma Ç en otro tipo de letra, o bien por la C, que es lo normal [...]” (Schuchardt 1900, 141). Pauko aleak ere eskuz zuzendua du, hurrengo gehienak bezala.

³³ P alean ere eskuz zuzendua.

³⁴ P alean ere eskuz zuzendua.

³⁵ P alean ere eskuz zuzendua.

³⁶ P alean ere eskuz zuzendua.

³⁷ Akatsarekin kaleratu zen bigarren edizioan: *egundaino*.

9	14	Cure	Çure ³⁸
	20	esquiribacuco	esquiribatuco
10	10	Cure	Çure
11	10	çatçaizquidela	çatçaizquid ela ³⁹
	19	derauzquiçtudala	derauzquiçtudala
15	22	cines	cinez
17	20	esaitea	esatea
19	alb. ⁴⁰	Ioil	Joil
24	7	sacrificios	sacrificioz
25	alb.	ø	<i>Luc. 12</i>
28	alb.	laso	lajo ⁴¹
44	alb.	Ioil	Joil
48	alb.	uper	Super
51	30	enayte ⁴²	<i>anarte</i> ⁴³
52	29	quam extingui ⁴⁴	quam <i>malebam expleri quam</i> extingui ⁴⁵
55	9	hutz	hutz ⁴⁶
57	28	baitcioen, bertce	baitcioen <i>erran cioen</i> bertce ⁴⁷
72	0	§ 2.	§ 1. ⁴⁸
82	6	labuzqui	labur z qui ⁴⁹
83	21	çarele	çarela ⁵⁰
84	24	Eguia hau	Eguia haur ⁵¹
92	12	San Augustinen	San Augustinec ⁵²
95	alb.	Ioil	Joil ⁵³
99	14	egitez	eguitez ⁵⁴
	27	baitito	baititu ⁵⁵
102	1	araubaz	arauaz ⁵⁶

³⁸ P alean ere eskuz zuzendua.

³⁹ Besterengatik ez balitz ere (eta ezin dira ahantzi honako tinta honen kolore desberdina, trazuak, etab.), U-2 delakoak hitz honen lehen hiru hizkiak ezabatuta izatea aski garbi mintzo da haren zuzenketa berritasunaz. Bigarren edizioak ez du zuzendurik ematen.

⁴⁰ “Alboan”, hots, Axularren *in margine* delakoa adierazi nahi du.

⁴¹ Ezabatze-marratzat hartu zuen bigarren edizioaren zuzentzaileak letraren gaineko marka hau eta gaizki eman zuen gero: *lao*.

⁴² Hurrengo orrialdean segida duen hitza da: “anarteraiño”.

⁴³ Marra batez ezabatua eta eskuzko zuzenketa alboan erantsia. Berdin Paueko alean.

⁴⁴ Zuzenketa-marka bi hitzen artean agertzen da, ezer ezabatu gabe. Hortik, beraz, “quam” delakoa errepikatzearen arrazoia. Paueko alean gillotinarenean eraginez moztuta geratu dira ertzean erantsita-ko hitzak: “[...]alebam/ [...]pleri/ [...]uam”. Bigarren edizioak honela eman zuen testua: “malebam expleri quam extingui”.

⁴⁵ Zuzenketa-testua, alboan.

⁴⁶ Bigarren edizioak ez du zuzenketa jasotzen.

⁴⁷ Zuzenketa testua, alboan. A delakoak berdin ematen du. Bigarren edizioak, azkenik, aldaturik eman zuen pasartetxoa: “baitcioen *errantioëla* bertce[...]”.

⁴⁸ Zuzenketa berdina An.

⁴⁹ Zuzenketa berdina An.

⁵⁰ Zuzenketa hau A delakoak bakarrik ematen du. Ez dago U-1 izenekoan.

⁵¹ Zuzenketa berdina An.

⁵² Zuzenketa berdina An.

⁵³ Zuzenketa berdina An. Bigarren edizioak ez du zuzenketa jasotzen.

⁵⁴ Zuzenketa berdina An.

⁵⁵ Zuzenketa berdina An.

⁵⁶ U-2k ere egina du zuzenketa. Ez, ordea, bigarren edizioak.

103	alb.	Cumel	Çumel ⁵⁷
111	alb.	Gener.	Geher ⁵⁸
112	alb.	gar.	ar. ⁵⁹
116	24	ere eguitera ere ⁶⁰	ere eguitera
119	11	gutças	gutça ⁶¹
	alb.	lyranam	lyrana
121	18	etchatier	etchatia ⁶²
122	alb.	Aom.	Hom. ⁶³
128	9	guztieguin	guztiequin ⁶⁴
130	4	equiten	eguiten ⁶⁵
	10	har badaidiqueyela	har c badaidiqueyela ⁶⁶
138	1	iatea	iatea <i>da</i> ⁶⁷
139	26	itzusien:	itsusien <i>c</i>
140	2	iautzapen	iautzapen
	30	bautsten	<i>haut</i> sten
142	10	onac, harri preciatu beçala	onac, <i>harri preciatuequin. Aditcera emateagatic</i> harri preciatu beçala ⁶⁸
143	1	baçara hec beçala	baçara, <i>ez</i> hec beçala
150	2	dugula baiño?	dugula <i>çuc</i> baiño? ⁶⁹
153	13	Filiï	Fili ⁷⁰
157	28	valioco du, urthea	valioco du <i>orduco</i> urthea ⁷¹
159	1	Iaincac	Iaincoac ⁷²
161	30	Eta azco	<i>Ezta asco</i> ⁷³
163		§. 2.	§. 3. ⁷⁴
167		§. 2.	§. 4. ⁷⁵
168	29	laxter	laster ⁷⁶

⁵⁷ Zuzenketa berdina An. Bigarren edizioak ez du zuzenketa jasotzen.

⁵⁸ Zuzenketa berdina An. Bigarren edizioak honela agertu zuen: “Genes”. Argi dago, beraz, argitalpen horren zuzentzailea ez dela ohartu pare-pareko lerroan dagoen “chehero” hitzari dagokion grafia diferente-ko hitza dela alboko “geher.” hori, eta ez ezertara ez datorren Bibliaren lehen liburuaren erreferentzia.

⁵⁹ Zuzenketa berdina An. Bigarren edizioan “art.”.

⁶⁰ Ezabatuta dago azken “ere” hau bai An eta bai U-1en.

⁶¹ Zuzenketa berdina An.

⁶² Zuzenketa berdina An. Bigarren edizioak ez du jasotzen.

⁶³ Zuzenketa berdina An.

⁶⁴ A delakoan bakarrik egin da zuzenketa hau. Bigarren edizioak ez du zuzenketarik.

⁶⁵ Zuzenketa berdina An.

⁶⁶ Zuzenketa berdina An.

⁶⁷ Aditz laguntzailearen eransketa hau berdin burutu zen P alean.

⁶⁸ Paueko alean ez dira zuzenketaren hizki guztiak irakurtzen, enkuadernazio berriago baten gillotinatzek asko urritu baititu orri-ertzak. Hau da irakurtzen dena: “[...]rri preci / [...]uequin / [...]ditce- ra / [...]aitea / [...]tic”. Bigarren edizioak aldaketa interesgarri batekin eman zuen zuzenketa: “onac, harri preciatuequin, aditcera *emateagatic*, harri preciatu beçala” (gurea da letrakera etzana).

⁶⁹ Berdin P alean.

⁷⁰ Azken bokala ezabatuta dago U-1en eta An.

⁷¹ Berdin An.

⁷² Zuzenketa berdina An.

⁷³ Berdin ematen da An eta Pauekoan. Bigarren edizioaren zuzentzaileak, halere, lehen hitza baino ez zuen aldatu: “Ezta azco”.

⁷⁴ Zuzenketa berdina An.

⁷⁵ Zuzenketa berdina An.

⁷⁶ Gaizki dagoen hizkiaren gaineko aldean jarri da zuzenketa. Ez dago An.

169	11	erauen	ærauen ⁷⁷
179	16	seguratçaric	segurâtçaric ⁷⁸
181	17	ceure demboran	ceure <i>gazte</i> demboran ⁷⁹
196	2	hatzaren	hat.saren ⁸⁰
	11	hatz	hat.s ⁸¹
197	198	197 ⁸²	
	5	oracinatan	oracinotan ⁸³
	18	itzasoan	itsasoan ⁸⁴
214	alb.	Iugenduco	Jugenduco ⁸⁵
217	6	tormentatua	tormentat.sua ⁸⁶
	21	heriotceac	heriotcea ⁸⁷
219	18	in corde	in <i>sinu</i> ⁸⁸
220	alb.	Glosa Cyrana	Glosa <i>Lyrana</i> ⁸⁹
225	22	esse etiam	esse <i>permisit</i> etiam ⁹⁰
233	13	hargatin	hargatic ⁹¹
246	11	ecin	ecen
248	18	dugu esperantça	esperantça <i>baiña esperantça</i> vanoa ⁹²
		vanoa	
250	8	duguo	dugu ⁹³
257 ⁹⁴	8	eta ez-complitceaz ere	eta ez <i>ez</i> complitceaz ere ⁹⁵
258	9	bertce iurametuac	bertce iurametu ⁹⁶
259	18	anhintz ⁹⁷	anhitz ⁹⁸
260	27	alada	alaba

⁷⁷ Zuzenketa berdina An.

⁷⁸ An bai, baina U-1en ez da agertzen. Bigarren edizioan ere ez.

⁷⁹ Berdin A delakoan. Zuzenketa hau ez da Pauekoan azaltzen ez eta, bitxia bada ere, 1988ko faksimilaren iturri izan bide zen *RIE*Ve koan ere.

⁸⁰ Zuzenketa berdina An. Bigarren edizioan zuzenketarik gabeko “egokitzapena” eskaintzen da: “hatçaren”.

⁸¹ Zuzenketa berdina An. Bigarren edizioak ez du jasotzen.

⁸² Zuzenketa berdina An.

⁸³ Zuzenketa berdina An.

⁸⁴ Zuzenketa berdina An. Bigarren edizioan zuzenketarik gabeko “egokitzapena” eskaintzen da: “itçasoan”.

⁸⁵ Zuzenketa berdina An.

⁸⁶ Zuzenketa berdina An (kontsonantea jartzeko marratxo “t” eta “u” hizkien artean).

⁸⁷ Ezabatu egin da sobera dagoen hizkia. Berdin An. Bigarren edizioan ez da zuzenketa jasotzen.

⁸⁸ Ordezte zuzenketa da. Berdin An. Bigarren edizioak ez du zuzenketa jasotzen.

⁸⁹ Bigarren edizioan: “Glosa yrana”.

⁹⁰ Berdin An.

⁹¹ Zuzenketa berdina An.

⁹² Berdin An eta Pn (azken honetan gillotinak mozturik utzi ditu eskuzko emendatze-lerro bien lehen letra: “Bainā es/ perantça”. Eskuzko zuzenketa “ñ”-aren gaineko marratxo ondoko “a” hizkia- ren gainera desplazatu izanak ekarri bide du bigarren argitaraldiak ematen duen bitxikeria: “esperantça, *baiñan* esperantça vanoa”.

⁹³ Zuzenketa berdina An.

⁹⁴ Gaizki dago lehen edizio bietako orri hau, “157” dela esaten baita.

⁹⁵ Zuzenketa-marka eginda dagoen arren, zuzenketa hau ez dator 1988ko faksimilean, baina bai jatorrizkoan, hots, U-1 delakoan eta Pauekoan. Bigarren edizioan ez da berdin ematen: “ez eta, ez complitceaz ere”.

⁹⁶ Azken letra biak erdi ezabaturik. Berdin P alean. Bigarren edizioak zuzenketa testuratu eta hitza zuzendu egiten du: “bertce iuramentu”.

⁹⁷ *RIE*Ve ko edizioan “anhiutz” garbia agertzen bada ere, U-2, B eta G aleetan “anhintz” garbia irakurtzen da.

⁹⁸ Sobera dagoen letra, erdi ezabaturik. Berdin P alean.

261	18	haztean	hastean ⁹⁹
	23	ibeni bada	ibentcen bada
263	4	daquiçon	daquiçun ¹⁰⁰
	23-24	beccatu gabe	be ^h atu gabe ¹⁰¹
266	27	queçurrean	gueçurrean
270	11	errietatsuen	erriertatsuen
271	3	hominibus	seminibus ¹⁰²
	alb.	Epges. 4.	Ephes. 4.
272	alb.	ø	Homil. 13 tom. 2
	6	Haragiac	Haraguiac
276	30	hasserrentcen da	hasserrentcen dana ¹⁰³
277	alb.	Guesatu	Quejatu
281	25	dagoena	dagoenac
284	5	coleraturic	celaturic ¹⁰⁴
	21	ez	ø ¹⁰⁵
287	28	buruaz fide	buruaz fida ¹⁰⁶
290	21	Hari muguerraren	Harri muguerraren
291	-	261	291
293	2	icil çaiteci	içil çaiteci ¹⁰⁷
294	10	alderatcen	aldar ^h atcen ¹⁰⁸
295	-	265	295 ¹⁰⁹
	28	hitz	ø ¹¹⁰
296	19	uidebimus	videbimus
301	19	Basililioc	Basilioc ¹¹¹
306	14	diohoatcula	dihoatçula
319	4	errecaitcen da	errecait ^h atcen da
321	20	gaitz	gaitzets-
324	1	erreque berat	erregue bera

⁹⁹ RIEVeko bertsioak ez du zuzenketarik. Urkixo bera izan ote zen “garbitzailea”? Zein toki gehiagotan?

¹⁰⁰ Zuzenketa berdina An.

¹⁰¹ U-1en eta An “ha” eransten den bitartean, 1988ko faksimilean “h” bakarrik ikusten da. Hurrengo lerroko “cc” kontsonante bikotea marra batez ezabaturik hiru aleotan. RIEVeko “faksimilean” ez da zuzenketarik erantsi, nahiz eta zuzenketa marka baten azarna geratzen den.

¹⁰² Paukeoan ere zuzenduta, baina U-1en ez bezala (gaizki inprimatutako hizkien gaineko zuzenketa hutsa baita), P alean, orri ertzean, “semi” erantsi da. I aleak ere eskuz zuzenduta dakarren arren (U-1en legez), beranduagokoa dela pentsatu behar da (latinez zekien batek –Lizarraga Elkanokoak berak, agian– egina), ez baita lehen ediziokoa izan daitekeen bestelako zuzenketarik liburu guztian barrena. Bigarren edizioak, aldiz, “hominibus” eman zuen.

¹⁰³ Bigarren edizioan: “hasserrentcen deña”.

¹⁰⁴ P alean ere orri ertzean zuzendurik, nahiz eta lehen hizkiak gillotinak moztu dizkion: “[...]elaturic”.

¹⁰⁵ U-1 eta P aleetan ezabatuta dago, baina zuzenketa-akatsa dirudi; aurreko hitzaren (“urruitic”) zuzenketa egin ordez burututako hanka sartzea agian? Bigarren edizioan ez da ezabatu.

¹⁰⁶ Bigarren edizioan, ordezkatu ordez, erantsi egiten da hizkia: “buruaz fidea”.

¹⁰⁷ Harrigarriro, RIEVeko faksimilean “içil” agertzen da. Bigarren edizioan: “ichil çaiteci”.

¹⁰⁸ Bigarren edizioan ez da zuzenketa jasotzen.

¹⁰⁹ RIEVekoan “299”. Nork ukitua?

¹¹⁰ “Hitz” hitza ezabatzen da hurrengo orrialdean beste bat dagoelako errepikaturik. Bigarren edizioan, berriz, hurrengo orrialdeko “hitz” errepikatua ezabatu zen.

¹¹¹ Gainetik ezabatua, paper zatitxoa (ezkoa, akaso?) dirudien batez.

326	9	ihez	ihes
329	8	verbis diceremus	verbis <i>illius</i> diceremus ¹¹²
	alb.	ø	<i>Gen. ulti.</i>
	16	hatz beherapen	hats beherapen ¹¹³
342	24	ahoz-peç	ahoz-pes ¹¹⁴
349	2	desordenatuaz	desordenatua ¹¹⁵
351	23	eguiatic	eguiati ¹¹⁶
353	9	harc ere	hari ere ¹¹⁷
	31	occasino	occasino <i>bilha dabilçanez</i> ? ¹¹⁸
355	4	conplecino	<i>condicino</i> ¹¹⁹
357	5	eta ema-coiac	eta <i>guiçon</i> ema-coiac ¹²⁰
361	28	ta	eta ¹²¹
367	4	gogoetez	gogoetey ¹²²
384	4	placer gosseac	placer gosse ¹²³
	alb.	Glos Cyrana	Glos <i>Lyrana</i> ¹²⁴
	21	iraguiagatic	iraunguiagatic ¹²⁵
385	2	Tandalus	Tantalus ¹²⁶
	3	Tandalo	Tantalo ¹²⁷
	25	numi	num[m]i ¹²⁸
387	1	haragaiaren	haraguiaren ¹²⁹
388	27	gero	guero ¹³⁰
392	alb.	Stugos	<i>Augus.</i> ¹³¹
393	4	beditutçue	baditutçue ¹³²
399	23	Odea	Ordea ¹³³

¹¹² Bigarren edizioan: “verbis *ellius* diceremus” (gurea da letrakera etzana ez dena).

¹¹³ *RIE*Veکو faksimilean “hatç”.

¹¹⁴ Bigarren edizioan: “haoz-pes”.

¹¹⁵ Ez da Arekin kontrastatu.

¹¹⁶ An, U-2n, Newberrykoan eta Legebiltzarrekoan agertzen den “c” hori tintaz ezabatuta agertzen da 1988ko faksimilean. *RIE*Veکوan, berriz, ez da hizki horren aztarnarik, edizioa prestatzeko orduan marka oro garbitu izan balute bezala.

¹¹⁷ Berdin An. Zuzendua zein zuzendugabea, bi-biak onartzen ditu perpausaren egiturak. Bigarren edizioak ez zuen jaso.

¹¹⁸ Emendakin berdina An eta Pn.

¹¹⁹ Zuzenketa berdina An, hitz berria alboan ezarriz.

¹²⁰ Emendakin berdina Pn, orri-ertzean.

¹²¹ Zuzenketa berdina An.

¹²² Berdin An eta Pn. Bigarren edizioak ez du zuzentzen.

¹²³ Zuzenketa berdina Pn eta An.

¹²⁴ Berdin An. Bigarren edizioan: “Glos. Syrana”.

¹²⁵ An “iraunguiagatic” agertzen da.

¹²⁶ Zuzenketa berdina An.

¹²⁷ Zuzenketa berdina An.

¹²⁸ Zuzenketa, berez, “m” delakoaren gainean marra batez egina da. Hemen, tipografi arazoak medio, parentesi artean ezarri da hizkiaren bikoitze adierazpen hori. Zuzenketa berdina An. Bigarren edizioak ere “mm” agertzen du.

¹²⁹ Zuzenketa berdina An.

¹³⁰ Zuzenketa berdina An.

¹³¹ Zuzenketa berdina An. Bigarren edizioan: “August.”.

¹³² Zuzenketa berdina An.

¹³³ Zuzenketa berdina An.

402	18	illea, eta lihoac	illea, eta lihoa ¹³⁴
410	29	eroria-ago	eroria ^{ago} ¹³⁵
414	29	usain ono	usain ona ¹³⁶
420	12	aitcindaric	aitcindar ^{iric} ¹³⁷
428	24	da	ø ¹³⁸
429	27	bageac	bagu ^{èc} ¹³⁹
432	1	dutuen	d ^{ituen} ¹⁴⁰
438	15	ukga	uk ^{ba} ¹⁴¹
441 ¹⁴²	8	ez içena	ez iç ^{ana} ¹⁴³
442	11	gogora	gog ^{ara} ¹⁴⁴
445	21	eztute uste	eztute ^{la} uste ¹⁴⁵
450	22	bi esperança fauna	bi esperança <i>Beccatutan dagoenaren</i> <i>esperantça, esperantça fauna</i> ¹⁴⁶
456	6	hurbitcean	hurbi ^t cean ¹⁴⁷
	13	bezam	bez ^{an} ¹⁴⁸
	16	daritean	darit ^{çan} ¹⁴⁹
	alb.	Pleu	Plin ¹⁵⁰
464	8	eguiteco	ego ^{iteco} ¹⁵¹
	25	gaixtaqueaian	gaixtaque ^{rian} ¹⁵²

¹³⁴ Zuzenketa berdina An. *RIE*ko bertsioan, harrigarriro: “lihoag”.

¹³⁵ Zuzenketa berdina An. Bigarren edizioan: “eroria ago”.

¹³⁶ Zuzenketa berdina An. *RIE*en ez da aldaketa agertzen. Ordea, orrialde honetako “ñ” zenbait ez dira agertzen *RIE*koan. Batzuetan irudi luke esku piadosoren bat ibili zela faksimila izan behar zuena “zuzentzen”. 416 orrian, esaterako, toki guztietan “egoitea” dena *RIE*en “egoitoa” bilakatu da. Ildo beretik, 422.eko “Sugen” (alb.) “gen” bezala geratu da *RIE*en. Bidenabar, esan dezagun bigarren edizioaren zuzentzaileak ez zuela ulertu zertara zetorren, “Suguen” gisa interpretatu baitzuen “jugen” izan behar zuena, hots, “chuchen”-en aldakia. Adibide gehiago ekar genitzake hona, baina nahikoa izan bedi azken honekin: 431 orrian “atsecabea” irakurtzen da edizio desberdinetan, *RIE*koan izan ezik, “atscunbea” gisakoa baita irakurtzen dena.

¹³⁷ Zuzenketa berdina An.

¹³⁸ Marra batez ezabatuta agertzen da aditza U-1 eta P aleetan.

¹³⁹ Zuzenketa berdina An (“a” ezabatuta eta “e” delakoari azentua jarrita) eta P delakoan. Bigarren edizioak ez du jatorrizko forma ukitu.

¹⁴⁰ Zuzenketa berdina An.

¹⁴¹ Zuzenketa berdina An.

¹⁴² Aurrerantzeko orriak lehen edizioaren arabera emango diren arren, ezin ahanztz daiteke 439 eta 440 orrialdeak bikoiztuta daudela eta, ondorioz, bi zenbaki gutxiago duela lehen edizioak bigarrenak baino. Beraz, lehen edizioaren 441 orria aipatzean, uler bedi bigarrenaren 443 orrialdea.

¹⁴³ Zuzenketa berdina An, hots, “e”-aren gaineko zuzenketatxo xumea, aipatu hizkia “a” bihurtuz. Paueko edizioan, aldiz, “içana” hitza idatzi da, osorik, alboan.

¹⁴⁴ An bakarrik agertzen da eskuzko zuzenketa hau. U-1ek ez du jasotzen, baina bai bigarren edizioak.

¹⁴⁵ Zuzenketa berdina An. Akats batekin ematen du bigarren edizioak esaldi zuzendua: “*eztutea* uste”.

¹⁴⁶ Eskuzko emendailuak ez dira guztiak berdinak. U-1 delakoan “beccatutan/ dagoenaren/ esperantça” azaltzen den bitartean, Pn eta An osorik ematen da zuzenketa, modu batea idatzia lehenengoan (“beccatutan/ dagoenaren/ esperantça/ esperantça”) eta beste modu batez idatzia bigarrenan (“beccatutan/ dagoenaren/ ren espe-/ rantça, esperantça”). Paueko edizioan “esperantça” hitza eranstera mugatzen da zuzenketa. Bigarren edizioak azken hauei segitzen die: “bi esperantça bekhatutan dagoenaren esperantça, esperāça fauna”.

¹⁴⁷ Zuzenketa berdina An.

¹⁴⁸ U-1en ez bezala (“n” garbia agertzen baita hitzaren amaieran), Paueko edizioak azken hanka eskuz ezabaturik duen “m” bat erakusten du inprimatutako testuan.

¹⁴⁹ U-1 aleak “e” mantentzen du, azpiko komatxoa eransten badio ere; P aleak argi zuzentzen du hizkia, “e” delakoa ç aratz bihurtuz.

¹⁵⁰ Arekin kontrastatu gabe.

¹⁵¹ Zuzenketa berdina An. Ez dago horrelakorik bigarren edizioan.

¹⁵² An zuzendurik, baina U-1en ez.

466	5	trababaillua	trabaillua ¹⁵³
469	8	bidea gabe	bidea <i>iaquin</i> gabe ¹⁵⁴
475	alb.	Glosa Cyr.	Glosa <i>Lyr.</i> ¹⁵⁵
477	19	Filii	Fili
478	29	opportet	oportet
479	11	spatiossa	spatiosa
	23	hutz eguinac	huts eguinac
489	24	hatz	hats, ¹⁵⁶
493	23	irababaci	irabaci ¹⁵⁷
495	29	Ø	(Testu osatzea) ¹⁵⁸
498	24	atseguin	<i>atseguin</i> ¹⁵⁹
508	21	aipgatu	<i>aipatu</i> ¹⁶⁰
517	alb.	Soil.	<i>Joil.</i> ¹⁶¹
519	1	dela	ø ¹⁶²
531	20	ura beça	ura beçala ¹⁶³
536	4	cofesatceac emaiten duela.	cofesatceac emaiten duela <i>garacia. Baiña ecin erranditeque, berretcen duela</i> ¹⁶⁴
538	24	aguiten	<i>eguiten</i> ¹⁶⁵
	28	leyelac	<i>leydac</i> ¹⁶⁶
551	11	behin	<i>Lehen</i> ¹⁶⁷
552	alb.	Lasoqui.	<i>Lajoqui.</i> ¹⁶⁸
553	20	Guztien	<i>Gaitzen</i> ¹⁶⁹
558	8	Ainguiru hen bieç	Ainguiru hec bieç ¹⁷⁰
570-1	30/1	guibelatcen du	ø ¹⁷¹

¹⁵³ Zuzenketa berdina An.

¹⁵⁴ Zuzenketa berdina An.

¹⁵⁵ Bigarren edizioak *Glosa* hitza baino ez zuen utzi.

¹⁵⁶ Zuzenketa berdina An.

¹⁵⁷ Zuzenketa berdina An.

¹⁵⁸ Ale bakar batzuen akatsa da, U-2n, Pn eta bestetan oso ondo irakurtzen baita U-1, O eta An eskuz berreraiki behar izan zen zati hau: “eta hegaldatcen *cena lurrean guekdi* bailliteque”.

¹⁵⁹ Zuzenketa baino gehiago, ondo inprimatu ez ziren hizkien gainetik egindako birpasa dirudi hemengoak. Berdin An eta U-1en. Pn, berriz, ezin argiago inprimatu zen.

¹⁶⁰ Bigarren edizioan: “aippatu”.

¹⁶¹ Bigarren edizioan zuzendu egin da akatsa, baina grafia bereziarekin: “Ioil.”.

¹⁶² A delakoak eta Pauekoak ere ezabaturik dute hitz hau. Ez da ordezkorik behar, aski baita aurreko orrialdearen azken hitzarekin, hots, azken lerroaren azpian doanarekin (hurongo koadernotxoaren hasiera iragartzen duena, hain zuzen): “beha”. Bigarren edizioak testuaren barruan ezarri zuen hitza.

¹⁶³ Zuzenketa berdina An.

¹⁶⁴ Zuzenketa berdina Pn eta An. Alabaina, aditzak aldatuak eman zuen bigarren edizioak pasarte hau: “[...] cofesatceac ematen *dioela* garacia. Baina ecin erran diteque berretcen *dioela*” (letrakera etzanez aldaketak). Hurrengo perpausa ere egokiturik eman zuen bigarren edizioak, aurreko aditzekin ezkondu ahal izateko: “Bada ordea erran diteque berretcen *dioela*, eta erran ongui, eta eguiatzqui”. Ohar bedi, halaber, lehen edizioko “erran ere ongui, eta eguiatzqui” *ere* gabe geratu zela bigarrean.

¹⁶⁵ Zuzenketa berdina An.

¹⁶⁶ Zuzenketa hau An bakarrik aurkitu dugu. Bigarren edizioak ere ez zuen testuratu.

¹⁶⁷ 220 eta 475 orrialdeetako zuzenketak egin zituen esku berberak egin da honako hau. Edonola ere, hirugarren aukera bat eskaini zuen gero bigarren edizioak: *bethi*. Pn eta An ez dago inolako zuzenketarik.

¹⁶⁸ Zuzenketa berdina An. *Lajoq.* hutsean utzi zuen bigarren edizioak hitza.

¹⁶⁹ Zuzenketa berdina An. Beste grafia batez bigarren edizioan: *Gaitcen*.

¹⁷⁰ Zuzenketa berdina An.

¹⁷¹ Bikoiztuta dago eta ezabatu egin da. Zuzenketa berdina An.

572	11	iende hec	iende hey ¹⁷²
577	6	egotz çaicanean?	egotz çaitçanean? ¹⁷³
580	2	beraz	berac ¹⁷⁴
585	20-28	carrasc-hotz	carrasc-hot ^{s175}
587	11	hatz hartceo	hat ^s hartceco ¹⁷⁶
590	-	§. 2.	§. 4. ¹⁷⁷
595	21	probotchu	prob ^e etchu ¹⁷⁸
603	30	erort-	erortcen ¹⁷⁹
604	30	egun	egon ¹⁸⁰
614	14	halacoric içaitecotz ere	halacoric içanen, eta içaitecotz ere ¹⁸¹

LABURDURAK

Ondoko laburdurak egun ezagutzen diren lehen edizioiko *Gero* desberdinak adierazteko erabili dira lan honetan:

- U-1: “Julio de Urquijo” fondoko alea, Koldo Mitxelena Kulturunea (Donostia. E.H.).
- U-2: “Julio de Urquijo” fondoko alea, Koldo Mitxelena Kulturunea (Donostia. E.H.).
- A: Azkue Liburutegiko alea, Euskaltzaindia (Bilbo. E.H.).
- O: Erret Kolegiatako Liburutegiko alea (Orreaga. E.H.).
- I: Aita Txotĩnodunen Liburutegi Nagusiko alea¹⁸² (Iruñea. E.H.).
- G: Eusko Legebiltzarreko Liburutegiko alea¹⁸³ (Gasteiz. E.H.).
- L-1: Lacombe Bibliotekako alea (Bergara. E.H.).
- L-2: Lacombe Bibliotekako alea hondatua (Bergara. E.H.).
- P: Bibliothèque Municipale-ko alea (Paue. Frantzia).
- M: Bibliothèque Mazarine-ko alea (Paris. Frantzia).
- E: Leiden University-ko alea (Leiden. Herbehereak).
- B: “Bonaparte” fondoko alea, Newberry Library (Chicago. Amerikako Estatu Batuak).

¹⁷² Zuzenketa berdina Pn eta An.

¹⁷³ Zuzenketa berdina An. Bigarren edizioak “ç” delakoa osatuz zuzendu zuen aditz laguntzailea: *egotz çaitçanean*.

¹⁷⁴ Zuzenketa berdina An.

¹⁷⁵ Hiru aldiz, eta hiruretan zuzenduta, An ere bai. Bigarren edizioak, berriz, ez zituen zuzendu.

¹⁷⁶ Zuzenketa berdina An.

¹⁷⁷ Zuzenketa berdina An. Ez da jasotzen bigarren edizioan.

¹⁷⁸ Zuzenketa berdina An.

¹⁷⁹ Zuzenketa berdina An.

¹⁸⁰ Zuzenketa berdina An.

¹⁸¹ Paueko alean ez bezala (“içanen, eta” idatzia baitago ertzean), U-1en “icanen, eta” azaltzen da. A delakoan ere zuzendurik.

¹⁸² Faksimila http://www.cfnabarra.es/BINADI/Ventanas/Entrada_eu.aspx delakoan.

¹⁸³ Faksimila <http://klasikoak.armiarmar.com/faksimileak/17/AxularGero.pdf> delakoan.

BIBLIOGRAFIA

- ALZOLA, N., 1967a, "Naparroan. Orreaga aldetik", *Egan*, XXVII, 11-20.
 —, 1967b, "El Gero de la biblioteca de Roncesvalles", *BAP*, 444.
 —, 1970, "Orreagako Gero-alea", *BAP*, 338.
 AXULAR, 1643, *Guero bi partetan partitua eta berecia...*, G. Milanges, Bordele. (Faksimiltzat argitaratua: Euskaltzaindia, Bilbo, 1988. Honen aurretik, bertsio bukatu gabea eta zatika argitaratua aurki daiteke *RIEV*¹⁸⁴).
 —, d./g., *Guero Guero. Bigarren Edicionea corrigetua, eta emendatua* (Eusko Legebiltzarreko Liburutegian dagoen bigarren edizioako alearen faksimila, Bilbo, 2006).
 BOUZA ÁLVAREZ, F. J., 1994, "Coleccionistas y lectores. La enciclopedia de las paradojas", in ALCALÁ-ZAMORA, *La vida cotidiana en la España de Velázquez...*, 235-253.
 DESGRAVES, L., 1995, *Dictionnaire des imprimeurs, libraires et relieurs de Bordeaux et de la Gironde (XV^e-XVIII^e siècles)*, Baden-Baden.
 GASKELL, Ph., 1998, *Nueva introducción a la bibliografía material* (Hitzaurrea eta berrikusketa teknikoak: J. Martínez de Sousa), Gijón.
 GONZÁLEZ DE AMEZÚA Y MAYO, A., 1946, *Cómo se hacía un libro en nuestro Siglo de Oro*, Madrid.
 GRIMAL, P., 1966, *L. Annaei Senecae de breuitate uitae*, Paris.
 H(ERMANO) V(ALENTÍN) B(ERRIOCHOA) = Alzola, N.
 LACOMBE, G., 1918, "La bibliothèque basque de van Eys", *RIEV*, IX, 66-68.
 LARRAMENDI, M., 1745, *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence y latín*, Donostia.
 OLAZOLA, J. M., 1993, *Historia del Protestantismo en el País Vasco. El reino de Navarra en la encrucijada de su historia*, Iruña.
 SALABERRI, P., 2007, "Axularren Gero liburuaren ale kasi birjinalako 'M' pleguaz", *Fontes Linguae Vasconum*, 105, 303-323.
 —, 2007b, "Axularren Gero liburuaren bigarren argitalpena lehenaren argitan", *Egan*, 3/4, 173-200.
 —, prentsan, "Axularren Gero liburuaren lehen edizioa. Aleak, aldeak eta zuzenketak".
 SCHUCHARDT, H., 1900, "Üeber die Einrichtung des Neudrucks, insbesondere über die Druckfehler und Varianten bei Leizarraga", in Th. LINSCHMANN eta H. SCHUCHARDT (eds.): *I. Leizarraga Baskische Bücher von 1571 (Neues Testament, Kalender und Abc) im genauen Abdruck*, Strassburg, ix-cxvi or. (orain liburu honen edizio faksimilean: "Sobre el modo de disponer la reimpresión, en particular sobre las erratas y variantes en el texto de Leizarraga", Bilbo, 1990, 131-214).
 URQUIJO, J., (in VINSON 1891-1898: 1984)
 VILLASANTE, L., 1974, "Bibliografía Axulariana", *Fontes Linguae Vasconum*, 16, nº extraordinario "Homenaje a Axular", 135-152.
 VINSON, J., 1891-1898: 1984, *Bibliographie de la Langue Basque (Volúmenes I y II)*, Donostia (1891ko *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque* eta 1898ko *Complément et Supplément* liburuaren edizio bateratua, eta J. Urkixoren oharrez hornitua).
 XAHO, A., 1836, *Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques (1830-1835)*, Paris. Gaztelaniaz 1929-1930, *RIEV*, XX (105-127, 182-206, 350-377 eta 460-493) eta XXI (98-152).

¹⁸⁴ *RIEV*, IV (419-472 eta 517-572), V (283-374), VI (5-99, 334-384 eta 441-482), XI (11-42) eta XXIV (73-88). Ikus: <http://www.euskomedia.org/riev100/eu>.

LABURPENA

Eskuzko zuzenketak Gero liburaren lehen edizioan

Axularren *Gero* liburua Bordeleko Guillaume Milangesen irarkolan argitaratu zen lehen aldiz 1643an. Askotan gertatu legez, edizio hartan suertatu ziren hainbat akats eskuz idatzitako zuzenketekin konpontzen saiatu ziren argitaratzaileak. Halere, ez ziren zuzendu kaleratutako ale guztiak, eta zuzendu zirenak ere ez ziren beti era berdinean utzi. Ildo horretatik, erraz egiazta daiteke egunotara iritsi diren aleen artean zuzendu gabeak direla gehienak, haietako ez gutxi beranduago egindako zuzenketa jasale ere bilakatu direlarik. Hemen aurkeztu den artikulua zuzenketa arteko bereizketa egiten ahalegindu da eta, aldi berean, jatorrizko zuzenketak diruditenak finkatzen. Horretarako erabili irizpide konparatiboa eskuzko zuzenketak dituzten aleetan oinarritu da nagusiki, hots, Pauko alean, Azkue liburutegikoan eta K. M. Kulturuneko bi aleetako batean, eta, printzipioz espero izateko ez bazen ere —hundaka kontatzen baitira daramatzan akats berriak—, bigarren ediziotzat hartzen den *Gueroko guero* delakoan ere, lehenean agertu ia eskuzko zuzenketa guztiak eraman baitziren argitaraldi berriko orrialdeetara. Milangesenean eskuz egindako zuzenketa zerrrenda eskaintzen da amaieran.

RESUMEN

Correcciones manuales en la primera edición de la obra Gero

La primera edición de *Gero*, el libro escrito por Axular, vio la luz en Burdeos en la imprenta de Guillaume Milanges, en 1643. Tal y como frecuentemente solía ocurrir, los editores intentaron subsanar algunos fallos de aquella edición mediante correcciones escritas a mano. Sin embargo, no se corrigieron todos los ejemplares publicados, y entre los que sí lo fueron, la corrección se realizó de manera diferente. Según esto, se puede verificar fácilmente que la mayor parte de los ejemplares conservados en la actualidad fueron libros no corregidos, y que no pocos de ellos recibieron correcciones posteriores. El artículo publicado en estas páginas intenta identificar las diferentes correcciones realizadas y, al mismo tiempo, establecer cuáles de ellas fueron las originales. El criterio utilizado para cotejar las versiones se fundamenta principalmente en los libros que contienen correcciones manuscritas, esto es, en el ejemplar de Pau, en el de la biblioteca Azkue, y en uno de los dos libros conservados en el Centro Cultural K. M., y, aunque en un principio pudiera parecer lo contrario —a que se cuentan por centenares los nuevos errores que contiene—, también en el que se considera segunda edición (el *Gueroko guero*), debido a que se trasladaron a las páginas de la nueva edición casi todas las correcciones manuscritas realizadas en la primera. Se ofrece igualmente la lista de correcciones escritas en la edición de Milanges.

RÉSUMÉ

Corrections faites à la main dans la première édition de l'œuvre Gero

La première édition *Gero*, le livre écrit par Axular, a vu le jour à Bordeaux, à l'imprimerie de Guillaume Milanges, en 1643. Comme il était souvent fréquent à l'époque, les éditeurs ont essayé de réparer certaines défaillances de cette édition au moyen de corrections faites à la main. Cependant, tous les exemplaires publiés n'ont pas été corrigés, et parmi ceux qui l'ont été, la correction s'est faite de façon différente. D'après ceci, on peut très bien voir que la plupart des exemplaires qui sont conservés actuellement ont été des livres non corrigés, et que beaucoup d'entre eux l'ont été plus tard. Cet article cherche à identifier les différentes corrections effectuées, ainsi qu'à définir celles qui sont originales. Le critère utilisé pour comparer les versions se base

essentiellement sur les livres qui contiennent les corrections manuscrites, c'est-à-dire, dans l'exemplaire de Pau, dans celui de la bibliothèque d'Azkue, et dans l'un des livres conservés dans le Centro Cultural K. M., et bien qu'au départ, on aurait pu croire le contraire –puisque les nouvelles erreurs qu'ils contiennent se comptent par centaines–, ainsi que dans celui que l'on considère comme la deuxième édition (el *Gueroko guero*), car presque toutes les corrections manuscrites qui ont été faites dans la première édition, ont été aussi faites dans la nouvelle édition. On offre aussi la liste des corrections écrites dans l'édition de Milanges.

ABSTRACT

Handwritten corrections in the first edition of Gero

The first edition of Axular's *Gero* was printed by Guillaume Milanges in Bordeaux in 1643. As so often used to happen, the editors attempted to rectify some of the mistakes in the edition with handwritten corrections. However, not all of the copies published were corrected and the style of correction differed among those which actually were. This means we can verify with some ease that most of the copies still preserved were non-corrected books, no small number of which were then corrected at later dates. The present article aims to identify the corrections made and, at the same time, isolate those which can be claimed original. The criteria used to categorise the versions is mainly based on those copies with handwritten corrections (i.e. the Pau copy, in the Azkue library, and one of the two copies kept in the Centro Cultural K. M.), and, although the hundreds of new mistakes which it contains may at first suggest to the contrary, on what is considered the second edition (*Gueroko guero*), almost all of the handwritten corrections to the first edition appearing in print. The list of corrections written in the Milanges edition is also provided.